

anaitasuna

IX URTEA — N.º 97
Depósito Legal SS. 1092-1959

Suplemento de la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa.

URTARRILLA (1) 1963

INDAR BARRI BAT

Gertakizun aundi baten aurrean gagoz: Nazifto pobreak aberatsen kontra jaso daben burrukan. Komunismu ta kapitalismuaren gerrea zaartutera doa; azkeneko arnasetan dago. Gaurko munduaren jabea ez da ez Rusia ez EE. UU.; "pobretasuna" da. Au sinistuteko naikoa da munduaren ondasunetatik bosteko lau 20%-ek daukezala jakitea. Baiña naziño pobreak be, toketan jaken partea eskatuten asi dira.

Sartaldetarrok, alboan daukogun pobretasuna ezagututeko, ezerezak gara. Pobretasuna, barriz, geroago ta indartsuago dator. Bai ba, aurreratutako naziñoak, batez be EE. UU.-ek, naziño pobreeri konbeni izan jakezen aurrerapenak emon deutseez bakarrik. Bizitzeari eutsiteko medizina edo ijierne apur bat bakarrik. Egundo ez jake buruan sartu produziño geiago bear dabela. 2.000 tekniku bakarrik zabaldu dabez sartaldetarrek naziño pobre oneitan. Belgikak be, oraindiño asko ez dala arte, 30.000 tekniku euki dauz Kongon, baiña bere probekurako. Gauza oneitan komunismua jaku nagusi: Txinari bakarrik 3.000 tekniku emon deutsoz. Leku guztietatik ikasi bear da; Rusiatik be bai. Arerioengandik ikastea ez dago debekatua. Pobretasunaren alde egin dogun apurra oso txarto egin dogu. Zeinbat eta geiago emon, gorroto geiago pillotu dogu. Gogoratu daigun EE. UU. eta Ameriketako beste naziño tartean gertatu dana. Orain arte artu dabezan eskerrak bestaldekoak izan dira. Asiari lagunduteko sortu

eben batzar batek be uts egin deutse. Lagundutako erriak komunismuaren besoetara joan dira. Indiako erlijioetasuna guztiz ederra da; baiña azkenean, komunismuaren atzamarretan jausi bearko dau. Alde batetik Txinak sakatuten deutso, eta bestetik, oraindiño, Inglaterrak egindako urrutu askoren oroimena dauko. Komunismuak dakarren materialismua ikusita atzerantza joatea baleiteke, baiña ez ete da aundiagoa kapitalismuak bizitzara dakarrena? EE. UU.-ko zuzendari batzuek esan dabe: "Gure indarraren ezereztasuna ikusi dogu".

Eta zein da frakasu onen sustraia? Auxe: maitasun-gabeko politika erabiltea. Munduko diru guztiarekin ezin leiteke gizon bat egin. Gizonak bakarrik egiten dabez gizonak. Dirua emotea ez da naikoa; norbera emon bear da. Norberetasuna emoten ez bada, dirua sobran dago. Guk egia daukogu, baiña egi au bizitzara eroaten ez dakigu. Lagunurkoaren maitasuna zer dan bada, dakigu buruz, baiña egiteetara eroaten ez dakigu. Maitasuna ta konfiantza sortu bear da politikan be erriak irabazteko; orretarako, naziñoak, norberetasuna zapaldu bear dabe.

Batez be, kristiñauok, maitasunezko bizitza au zabaldu bear dogu. Kristoren errefua maitasunezkoa dalako. Il edo ostu egiten dogunean pentsaten dogu falta dogula bakarrik. Eta ez da egia. Maitasunezko aginduak, lagunurkoa norbera lez maita-
7'garren orrialdean jarraitzen du)

BASERRITARRAK

ERRIRUNTZ



Ezta gauza gatxa gaur egunean baserri asko ustuta ikustea; obeto esateko, ustuta ez, kurrilloiz eta musko-bedarrez beteta baiño. Zer gerta jake etxe oneitako biztanleai? Zer? Danok dakigu. Eztauko argitu bearrrik: baserritarrak ikusi dabe erri aundieta-ko gizonen bizitza eta eurena baiño obea-
goa begitandu jake eta... plis plas! itxi atxurra eta txakurra, dagozan lekuan, eta anka! tximistia baiño ariñago erri aundietara.

Baserritar onei, sireniaren otsa asko obea-
goa begitandu jake kortako astoaren arran-
tza edo beiaeren muua baiño.

Eztot esan nai baserritar oneik txarto egi-
ten dabenik. Ez. Bakotxa libre da berak
nai dabena egiteko, Jaungoikoaren kontra
ezpadoa, eta or konpon!

Baiña ondiñoik baserrietan dagozenei gau-
zatxo batzuk esan nai deutsetez.

Lenengo, biarrak daukon aunditasuna iku-
si bear dau baserritarrak. Au buruan sar-
tutea oso gatxa izango da. Konpreniten dot,
guk, gizonok, gauza onenera joten dogula
beti. Baiña biarraren aunditasuna konpre-
nitzea gatxa bajaku gaurko mundu laban
onetan, Jesukristori begiratu besterik eztau-
kogu: ogeta amar urte —begitu ondo: oge-
ta amar urte!— Nazareteko etxean; batean,
soloko sokillak joten; bestean, aroztegian
bere aitari lagunduten; orain, ura ekarten;
gero, amaren errekaduak egiten. Bai, Jesu-
kristok bedeinkatu eban biarra bere jaun-
goikozko izerdiagaz.

Ba-liteke baserritarra, baserrian gitxi ira-

bazten dabelako edo kontribuziñoak aundiak
diralako edo beste milla gauzagaitik joatea.
Orregaitik, baserritarrak, iñoiz be eztau egon
bear bakarrik bere biarrean; beste baserri-
tarrekin batu bear dau eta danak batuta,
euren diarrak indar geiago eukiko dau erri-
an, probintzian, baita nazifioan be. Baiña
baserritarra bakarrik aurkituten bada, bere
abotsa basamortuan jausiko da, ta kitt!
Ez dituez errespetauko euren deretxoak eta
gero negarra, eta errira edo nonora joan
bearra etorriko da.

Bigarrenez, baserritarrak kalera doaze-
nean, nora doazen begitu bear dabe. Kalera
doaz, bai; eta kalean, eztakit nik zergaitik,
biar gitxiago dagolako edo... konfort asko
dagoalako edo... Jaungoikoak daki zergai-
tik!, baserriko oitura ederrak galtzen dabez:
eguneroko errosarioa, domeketako mezea
eta abar. Danok dakigu, nai kalean, nai ba-
serrian, Jaungoikoaren legea toki guztietan
bat dala eta edonun bete bear dala. Kalera
zoiazen baserritarrok ez galdu benepein
zuen erlijiooko oitura ederrak!

Ta ganera ez pentsa kalea zerua danik, ez.
Fabrikako biarra ba-liteke baserrikoa baiño
ariñagoa izatea, baiña beti fabrikakoa, ba-
serrikoa baiño arrisku geiagokoa.

Kalera doazan baserritar askok desilusio
aundiak artzen dabez. Bai ba, kalean
be estomagua egunero-egunero ustuten da,
eta bete bear bada, biarra egin bear; bes-
tela...

Eleizea ta politikea



Konzilio dala-ta, Erroman dagozan periodistari Cardinale Monseñoreak berbaldi maminitsu bat egin deuste. Itzaldi au tarteko dauala, Madrilleko "Ecclesia" errebisteak bere aldefik, editorial-artikulo trinkoa argiratu dau. Biotatik eta leenagotik esanda dagozantxoak emon nai nauskizuz.

Beti esan ei da Eleizeak ez dauala politikarik egin gura. Alderdi politikuen ganetik dagoala bera, ta abar; baña ez dau jentek lar sinistuten. Alan be auxe dogu. Eleizea berez politika gauzen ganetik dago, ta ez daiteke politikuekin politika egiteko batu, ezta onelakoak kristiñauak izan da be. Eleizea, eta Eleiz onen semeak, eleiztarrak diran neurrian, ez daitezke politika biarretan sartu. Galerazota daokoe eleiztarrak olantxorik: kristiñautasunaren izena euren politikari ezarriaz, Eleizen edozelan euren politikagaz naastutea.

Eleizeak ez dau politika-indar biurtu gura, ez dau ori bere eginbearra, izan be, bere aginpidea espirituskoa da. Egia, bere betekizun onek gizonaren deretxoak, giza-eskubideak gordetzen hultzatzen dau Politika oker eta edozelango batek, bear ez leikezan bideak artuta, giza-legeak oinperatuten badigu, Eleizeak bere abotsa altzako dau jokatibide orren kontra; ez barriz politikea egin gura dabelako, politika gauzeak baño leenago dagozan gizon danon eskubide zapaldukoak jagoteko baño. Esate baterako, gizon guztiak famili bat sortzeko eskubidea dauke, ta politiku-alderdi batek deretxo au gorde ordeze kenduko baleu, orduan Eleizeak politikagaz egiten dan maltzurkeri orren kontra jagi bearko leuke. Eleizeak onetarako eskubide itxi-ezifia dauka.

Konkordato batek ganera, ez dau esan nai Eleizeak olango edo alango politika-egokerarik ontzat emoten dauanik. Bai zera!

Vatikanok orain urte batzuek Trujilloren gobernuagaz konkordatu bat egin eban. Jente asko "eskandalizatu" (!) egin zan, Eleizea Trujillogaz alkartu zalako. Cardinale Monseñoreak, periodisteak itaunduta, argi esan deusku, ez dagoala alako alkarkerarik konkordato bat egin dalako. Konkordatoak ez dautsa esaten gobernuari: "Zu ona zareanez, nik, Eleizeak, biotz-biotzez bedeinkatzen zaitut, Aitaren...". Beste au difiotsa konkordatoak gobernuari: "Zu or zagozalako, nik ez deutzut esaten orain eskubidez ala lege-kontra, zugaz artu-emonak izan bear ditut, neure eliztarren arimak zerurantzta obetoago zuzentzeko. Onegaitik, bion arteko, Estaduaren eta Eleizaren alkar-biarrak, aulantxe izango doguz aurrerantzean. Zu konforme ta ni be bai". Auxe esan eta firmatu egiten da konkordatoa.

Ganera, Eleizeak ez dau nai, eleiz-gizonak, pralle ta abadeak, sartu daitezen. Onetarako Aita Santuak, bakotxean, emon bear dau baimena. Ganerako kristiñauak eskubide osoak daukiez, eta askotan egitera beartuak dagoz, politikan sartuteko; baña eleiz-gizonak onetarako permisua berezia bear dabe.


Alan be, politiku-kristiñauak ez daukie esaterik: "Gu kristiñau garian lez, anai guztiak guri lagundu bear deuskuzue politikan, Kristoren gogoia errian eta politikan sartu daigun". Lantzean bein ba-lei politikan be guztiok alkartutera bearturik egotea, karpoko arerio bateri gogor egiteko, baña ez politika beragaitik, leen aitatu ditugun giza-eskubideak olantxe bakarrik gorde daikeguzalako baño. Arrisku gorri oneetan ez bada, kristiñauok libre gara gizarte osoaren onerako biarrean diardun edozen politika-partiduetan biar egiteko.

Au danagaitik, Eleizea ez da Partidu baten alde paretan, beste barik.



Italiaren ondoren USA-k ekarri dau Kon-
tizillora Obispo geien: 236 Gotzaiñ. Onek
esan gura dau Ipar Amerikako katolikoak
indar aundia daukela, ta gero ta geiago ira-
bazten doazela.

Ipar Amerikako katolizismoa ezta Euro-
pakoa lez. Norte Amerikako katolikoak
batasun bikaiñagoa agertuten dabe Europa-
koen aldean. Zergaitik? USA naziño baka-
rra dalako. An eztagoz, Europan lez, Es-
taduak banatuta, alkartuta baiño. Ta abe-
rri-batasun orrek eleiz-batasunari lagundu



U. S. A. - KO

egiten deutso. Europako katolizismoak naziño baxotxean izakera berezia agertuten dau. Esaterako, Espaiñako katolizismoa ta Prantzikoa ez tira bardiñak.

Baña Ipar Amerikako katolizismoa be ezta bardin-bardiña bere alderdi guztietan. An be ba-dituz berezitasunak: laster igar-
tzen da nun dagozan irlandarrak, kanada-
tarrak eta italiatarrak.

Ipar Amerikako katolizismoa leku geie-
netan indartsua ta eragin aundikoa da, baiña
aparteko bizia azaltzen dau lurralde batzue-
tan. Sortaldean Iparraldeko estadietan da-
go katolikotasunik sakonena ta aurreratue-
na.

Abadeetako bokaziño asko daukez emengo
eleizbarrutiak. Eurentzat bear dabezan bai-
ño geiago. Alderdi onetan daukoz Amerika-
ko Eleizeak bere buruzagirik ezagunenak be:
Boston-go Arzobispo dan Cushing kardinala,
ta New York-go Spellman kardinala. Cus-
hing gizarte-arazoko gaietan da ospetsua.
Biargiñ-sume danez, ardura aundia emon
deutso langille arteko problemiar. Liberal
famea dauko. Spellman kardinalak eta
beste askok katolikoan eskoletarako eskatu
daben estadi-laguntza, Cushing Arzobis-
poak ez dau defendidu. Ixildu egin da azken
aldiko eztabaidan, lenago arazo orren alde
agertu etzalako.

Ipar Amerikako katolizismoan gauzarik
arrigarrietako bat praille-konbentu itxiak
zelan ugarituten doazen ikustea da. Tra-
penseen lekaidetxetan amerikano asko sar-
tzen dira, bizitza osoa otoiñtean eta gogojar-
dunean igaroteko. Eta monje-etxe oneetan
ekumenismu-batzarrak sarri egiten dituez,
katolikoak eta Eleizatik kanpora dabizen
anaiak alkar aituaz, batasunera elduteko
asmoakin.

USA-ko Eleizea gogotsu bizi da. Bizi in-
dartsua dau. Estaduaren aldetik ez dauko
aparteko babestasin, eta ain zuzen orre-

KATOLIKOAK



xegatik azi da gogor. Ipar Amerikako katolikoak eztira gelditi egoteko jaiok: ipar-amerikak, gogotsuak; asmobide barriak asmau eta aurrera errotan dakiezanak.

Baia tenzio apur bat sortu da abade ta erregizonen artean. Klerigoen eta laikoaren artean burruka apur bat dago. Alkarren barri ondo ez jakitetik sortu da ori. Laikoak be agindu, apostoladutzako organizazioetan agindu egin gura dabe, ta ori ez jagoke. Eleizean euren lekua dabe laikoak, Bateoak eta Konfirmazioak emoten deutsezan eskubideakaz. Eleizgizonen eskuetan egon izan da beti Eleizea ta euren arazoa da bateatu guztientzat konbeni diran erabakiak artu ta ekinbide barriak erakustea. Kristiñauak ba-dauke zer-egiña Eleizan, bere zati bizia diranez, baiña aginduten sartu barik.

Norte Amerikako Eleizea aberatsa ta barritasun-zalea; praktikua, baiña teoloji bakoa; txit ederto organizatua, baiña Ebanjelio bakoa, dala esan dabe. Egia da? Ori alderdikeriz berba egitea da. Ori Ipar Amerikan bizi diran berrogei milloi katolikoaren barri ez jakitea da.

Len gorago aitatu dodan katolikoaren eskola-auzia USA-n ezta oraindik Eleizearen alde lortu. Estaduak, Legēak aginduten dauan lez, erriko eskolai bakarrik lagundu bear deutse. Baiña ba-dira gañera parrokiaren ardurapean edo katolikoaren eskuetan dagozan eskolak be. Eztabaida gogortxoak erabilli dabez, New York-go Arzobispo dan Spellman kardinala alde batetik dala eta Kennedy Lendakaria bestetik. Azkenean ixildu dira aldi baterako, baiña auzi au beti egongo da bizirik Ipar Amerikako Estadu Alkartuetan, katolikoaren eskolai Estaduak lagunduten ez deuten bitartean. Sei milloi dira eskola ta unibersidadeetan dabizen ikaste katolikoak. Ta katolikoak eurentzat bakarrik ez dabe eskatzen estaduaren laguntza, eskola konfesional guztientzat baiña. Judutarren, pro-

testanteen ta gañerakoaren eskoletarako be izango litzake.


Razismoa be problema bat da Ipar Amerikan. Bizi-bizirik egon izan da Ipar Amerikan eta oraindik ezta il. Eleizeak beti zaindu dauz gizon guztien eskubide bardina. Ta emen be orixe bera egiten dau. Ederto erakusten dau Eleizeak Ipar Amerikan berretzat eztagoala arraza baltzik, oririk edo zuririk. Gizon guztiak dirala Jaungoikoaren seme.

Eleiza Katolikoarentzat gertakizun pozgarria izan da bere seme bat Nazio Buruizatara lendabizi elduten ikustea. Protestanteak larri zirar, John F. Kennedy lendakari-gai zalarik, danetan katolikoaren alde jokatuko ebalako bildurrez, baiña naiko garbi agertu dau Kennedy-k aparteko mesede gitxi egiteko dagoala, bai katolikoai eta bai beste edozeñeri. Beraz, autaketa edo elezio-aroko puritano areek baretu dira, Kennedy Lendakariak Nazioaren Konstituzioa zuzen beteten dauala ikusirik. Ain zuzen be! Katolikoaren alde jarri bearrez, euren kontra jardun da, Konstituzioa jarraituz. Baiña katolikoaren artean be asko dagoz Kennedy Presidenteagaz eskola-arazo orretan. Ba-dakigu Ipar Amerikan katolikoak indar aundia artzen ari dirala. Nazio guztiko laurdena ta geiago dira (40 milloi), 180 milloi biztanle artean.

Amaituteko, orra ipar-amerikanoen eritxi bi, Erroman asi barria dan Eleiz Bazarrak aztertzen dauzan liturgi-gaietaz:

“Latiña baiño gauza politagorik eztago, baiña nik inglesa aituten dot... Iñok ez deust sekula latinez dirurik eskatu”.

“Erri-izkuntzak eztau ezertarako balioko abadeak marmarrean jarraituten badau; marmarrean inglese egitea latinez egitea baiño okerrago da”.



Ezkontzako sakramentura

joateko

libertadea bear da

Ezkondu ainbat arifien, ta kitxu? Ez da naiko! Ezkontzako sakramentura joateko astiro-astiro preparatu bear da. Ezkontza SAKRAMENTU bat da: eta Sakramentua danekero, errespetu aundia bear dau.

Ezkontzako Sakramentura joateko libertadea bear-bearreko da. Libertade onek toki askotan topaten dauz "estropezuak": batzuetan, gurasoengan; beste batzuetan, norberaren grifia txarretan; urrengoan emaztegaiarengan edo senargaiarengan...

Ezkondu baiño len gurasoen katigutasunetik urtetea bear bearrekoa da. Baiña ez da naiko; bear bearrekoa da norberaren katigutasunetik eta ezkonlagunaren katigutasunetik urtetea. Bear bearrekoa da norberaren grifia txar eta ilusiño ganorabakoetik libre egotea; bear bearrekoa da emaztegaiaren edo senargaiaren amodio ganorabakoetik libre egotea.

Joan dan illeko "ANAITASUNA"-n, gurasoak euren semeen ezkontzagaz euki bear daben errespetutaz zeozer esan genduan. Datorren illeko orritxoan "senargai edo emaztegaiaren partetik egon bear dauan libertadeatzaz" berba egingo dogu. Oraingoan, ezkontzara doan mutil edo neskeak bere partetik eroan bear daben libertadeatzaz zeozer esango dogu.

1.—Jatorrizko pekatua eta libertadea.

Modu askotara galdu geinke Jaungoikoak emondako doairik aundiena: libertadea.

Batzuetan, gure aita edo ama izango da gure libertade naiaren estropezua; beste batzuetan, gure fabrikako nagusia; urrengoan, gure lagunak... Baiña, zoritxarrez, bada norberaren libertadea galdu eragin daitekean, eta askotan, galdu eragiten dauan beste bide, modu edo gauza bat. Zein edo zeintzuk dira gauza oneek? Norberaren barruan daroaguzan grifia txarrak. Danok daroaguz gure barruan —askotan kanpuan

be bai!— grifia txarrak. Jatorrizko pekatuak sakon sartu ebazan bere sustraiak gure biotzean. Pekatu auxe dogu gure grifia txarren iturburu edo asikerea.

Jaungoikoak libertade osoa emon eutsen gizonari, baiña gizona, pekatuan jausi ondoren, adore bage gelditu zan. Eta gaixotasun au gitxi balitz legez, gizonaren libertadea grifia txarren eskuetan jausi zan.

Orduan, zer? Gizonak orain ez dauko libertaderik edo naipeirik? Bai, baiña ez libertade osoa.

2.—Oraingo gizona eta libertadea.

Gitxi edo asko, gizon guztiak dauke libertadea. Pekatuak ez eban iruntsi gizonaren libertade guztia; libertadearen "mamiña" gizonaren eskuetan gelditu zan. Libertadearen mamiñ au oraindiño gizonaren eskuetan dago. Gitxi edo asko, danak dira libreak, batzuk geiago, beste batzuk gitxiago; baiña, gitxi edo asko, danak.

3.—Gizon askoren libertadea.

Gizon askoren libertadea itxota legez aurkituten da. Zergaitik? Jatorrizko pekatuak ezarri eutsen grifia txarren kontra egundo "burruka" egin ez, dabelako. Zoritxarrez, modu orretako gizon asko aurkituten dira mundu onetan; gizon asko —ta txarrago oraindiño!— emakume asko.

Ta, jakiña!, nor ezkondu daiteke beti bere grifia txarren azpian bizi danagaz? Nor ezkonduko da, esate baterako, moskortuta dabilen mutil gazteagaz? Nor ezkonduko da gizonak irabazi daitekezan diru apurrak "pintatzen" eta nabarmenkerietan gastateko beti prest dagoan neska gazteagaz? Nor ezkonduko da, beti ernegetan dagoan gazteagaz? Nor? Nor? Nor?...

ANAITASUN

ARNASAK

1.—“Lutero il zanetik izan dan batzarrik garrantzitsuena”, deitzen eutsen lengoan Kipak, Glasgow-ko Notre Dame konbentuan egin zan batzar bateri. Katolikoak, protestanteak, presbiterianoak eta abarrek osotu eben, Don Columban Mulcahy abate nagusiak deituta.

John Kent, artzai presbiterianoak agertu eban lez, batzar onen egitekoa: anaien xerak eta irribarreak barriztutea izan da.

* * *

2.—Hong-Kong urian be ontzu izan dabe katolikoak, eta protestanteak beste batzar bat. Lengo urtean, Kontzeziño egunean kontixu, obispo anglikano bat katolikoek elizkizunetara joan zala-ta, aurtan edozenbat abade katoliko joan dira euren S. Juanen katedralera, Elizen Konseju Ekumenikoak ipinitako elizkizunetara.

* * *

3.—Anaitasunaren agerbide ederra emon eben, baita be, azkenengo Pazko jaietan Jerusalemeneraño alkarregaz batera joan ziran katoliko ta protestante erromesak be. Dominiko bi ta artzai protestante bi ziran euren zuzendariak. Larogetamar eliz guztietako kristiñau batu ziran lur santu aretan, batera otoitz egin, eta Israel, Jordania ta Libanoko anaiekaz berba egitegaitik.

Hakim, grezitar artzobispoak, eta Darde-
rin, armenitar Patriarkiak pozik artu ebe-
zen.

* * *

4.—Visser t’Hooft jaunak, Elizen Konseju Ekumeniko-ko sekretarioak, Minneapolis errian (USA) egindako berbaldian, gauza bat eskatzen deutso Erromako Batzar Nagusiari: Barriztu daizala ainbat len kristiñau arteko berbaldiak.

* * *

5.—Erromako Ortodoxo-elizaren buru dan Modesto Armokallas aitak diño:

—“Nere ustez, Greziako Elizak, eta, seguruen, baita be beste Ortodoxo-elizak, botauko ñabez, azkenean be, Batzar Nagusira eutariko batzuek, abadeak izan ezarren.

* * *

6.—Atenagoras Patriarkeak bere aldetik:

—“Kristiñau batasunaren ordua eldu iaku”.

Jakingarria da Atenagoras au, Aita Santuaren lagun aundia dala, eta bere gogorik beroena, il orduko, Erromara joan eta Juan XXIII-ri besarkada bat emotea zala.

* * *

7.—“Batasuna —Bea kardinalak diñonez— inoiz baño urrago dago. Elizen arteko artu-emonak pir-pir dagoz, oraindiño asko xamar falta bada be. Batzar Nagusi onek bideak garbituko ditu, eta bitartean kristiñauak otoitz egin ainbat ariñen lortu daigun.

* * *

8.—Visse t’Hooft jaunak esan dau:

—“Gure eliza guztiak, bai protestantiak eta bai ortodoxoak, egingo dabe otoitz Erromako Batzar Nagusiagaitik, katolikoak be alan egin eben gugaitik eta. Pozgarria da au. Iñoiz ez dogu ikusi olako batasun gogorrik”.

* * *

9.—Amerikako siriatar ortodoxoen nagusi dan Bashir Artzobispoak diño Aita Santuagaitik:

—“Jaungoikoak Ber-berak bialdu dau —nire ustez— Juan XXIII, eta batasuna lortuteko; ziur egon ni beti bere alde egongo nazela.

—Oraindiño lengoan etorri zan gure elizara Wright, Pittsburg-ko obispo jauna. Gure elizkizunetan egon dan lenengo obispo katolikoa. Cushin kardinala be egon zan baño ez errezoetan. Oraindik aurrera katolikoek lagun gara”.

Antonio Zubizarreta.

(Lenengo orrialdetik dator)

tutea esan gura ez badau, ez dau ezer esan gura. “Danari lagundu, batez be, pobreak”. Au da kristiñauak egin bear dabena.

Kristiñauak garan ezkerro, Kristoren erreiñua zabaldu bear dogu. Gaurko munduan, apostolu ez izatea, apostata izatea da. Ez dago erdizkorik. Soziedade baten bizi gara. rikanok beste gauzetan lez dira erlijioan Zeruaren billa gabiltza, baiña lurrean bizi gara. Betiko bizitzea sinistuten dogu, baiña bizitza ori lurrean lortuten da. Kristozko artegi barri bat emon deiogun munduari.

ARANA.



Buzuko miñak kentzeko

IZKIRIMIRIAK

JOAN-ETORRIA

—Txo, kartzelia emetik urrun iagok?

—Ara. Ni joan, ordu bitan joan nintzoan. Baña etorteko ogei urte bear izan nioazan.

* * *

EPAI-MAIEAN

Epailleak, juezak: —Badakizu zergaitik zagozan emen?

—Mosu-pañeluak ostu dodazalako.

—Badaukazu ezer zure alde esatekorik?

—Bai, jauna; katarro aundi bat neukala.

* * *

UR GAZIA

—Zu, baiñerua: zer dauko ur onek onenbestean piketako?

—Ez dozu eskatu ba itxas-ur bañu bat?

—Bai.

—Ba itxas-urik eztaukadanez, kangrejo batzuk bota deutsadaz barrura.

* * *

JAIN-GUREA

Katakumeak: —Ama, aundi egin nadiñe an, zer izango naz?

Katamiak: —Bizi bazara, katu; ilten ba zaituc, koneju.

* * *

ANDEA-GIZONAK

Gizonak: —Atara deutsue agin ori?

Andreak: —O, ze neke-miña! Denbora guztian euki nabe agoa zabalik.

Gizonak: —Un! Geiago sufriduko zendum agoa itxita euki bazinduen.

* * *

TXAKUR FIÑA

—Nire txakurra? Nire txakurra fiña da, fiña. Iru kilometrotik be usaiña artzen deust.

—Garbiketa on baten bear-izana ba-daukozu orduan!

* * *

KANPOTAR BATENA

Kanpotar bat ba-dator errira, eta itauntzen dau:

—Erri onetan jendea sarri ilten da?

—Ez jauna. Emen ilten dana, baten ilten da.

* * *

GOR BI BERBETAN

—Ze ordu da?

—Gaur, astelena.

—Eskerrikasko! Ez dot erretan.

* * *

ERRETZALLIENA

—Ez zeunstan esan ba ezendula geiago erreko?

—Eta egia esan neutsun.

—Egia?

—Bai. Ez dot geiago erretan, lengo beste baño.

* * *

ERREMEDIO ONA

—Zu, aspaldion guztiz katarrotuta nabil, berbarik egin ezifnik. Zer artu neike?

—Arrautzak artu egizuz.

—Onak dira ba?

—Oso onak. Oloak eurak be, egiten dituezanean, kantetan asten dira.

* * *

ALKARREN ANTZA

—Txo, begitu zelako lelo-arpegia daukon arek!

—Kontuz gero, neure anaia da-ta.

—A, parkatu! Ba-dauko antza.

Felix Bilbao.